

## ELKARTEK PROGRAMA 2018: I. FASEA ARLO ESTRATEGIKOETAN ELKARLANEKO IKERKETARAKO LAGUNTZAK (EUSKO JAURLARITZA) (2017/20/20ko EHAA)

### Xedea

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea osatzen duten ikerketa, garapen eta berrikuntzako erakundeek egindako Elkarlaneko Ikerketa sustatzeko proiektuak onartu eta hautatzea (ELKARTEK Programa), Euskadiko 2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean jasotako espezializazio-esparruetan jasota dagoen bezala.

### Deialdiaren Faseak

#### I.Fasea: Proiektuak onartu eta hautatzea

Aurrekontu-kudeaketatik kanpo dagoena, proiektuen aurkezpena eta ebaluazio teknikoa barne hartzen duena eta onartutako proiektuen hautaketarekin eta jakinarazpenarekin bukatuko dena.

#### II. Fasea: Laguntzak esleitzea

Ebatziko da zenbateko diru-laguntza emango zaien aurreko fasean hautatu eta programaren eskakizunak betetzen dituzten proiektuei.

### Diruz laguntzeko proiektu motak:

	ELKARLANEKO FUNTSEZKO IKERKETA	INDUSTRIA POTENZIAL HANDIKO IKERKETA	INTERES BEREZIKO EKINTZA OSAGARRIAK
ESKRATZAILEAK	Lankidetzaz, gutxienez, <b>ZTBESko hiru eragile mota ezberdinen artean*</b>	ZTBESren I+Gko enpresa-unitateek gidatuta beste eragile batzuekin elkarlanean	Bitartekaritza-Organismoak eta Hedapen-Organismoak
MOTA	Funtsezko ikerketa – proiektu estrategikoak ezagutza handitzeko	Funtsezko ikerketa orientatuko proiektuak edo industria ikerketakoak	Azterlanak egitea, lankidetzaz aldeztua, etab. (kontsutatu deialdiko 4.3. artikulua)
LEHENTASUNEZKO ARLOAK	a) Energia. b) Fabrikazio aurreratua. c) Biozientziak/osasuna	Begiratu <a href="#">ZTBP Euskadi 2020</a>	
UPV/EHUko SAIL ETA INSTITUTUEN PAPERAK	Lider edo parte hartzailea	Parte hartzailea soilik	<b>Modalitatetik kanpo</b>
IRAUPENA	Bi urte arte (2018-2019)	Bi urte arte (2018-2019)	Bi urte arte (2018-2019)
AURREKONTUAREN EZAUGARRIAK	Gutxienez 500.000 €; 50.000 € erakunde	100.000 € gutxienez; 50.000 € erakunde	-

	bakoitzeko	bakoitzeko	
<b>DIRUZ LAGUNDUTAKO AURREKONTUA</b>	%100a	%100a (Funtsezko ikerketa) %50a (industria ikerketa)	%100a (Funtsezko ikerketa) %50a (industria ikerketa)
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>	Kontsultatu deialdiko 15. artikulua		

\*Gomendatzen da "ZTBES sareko eragileen tipologiak" agiria kontsultatzeko baldintza hori betetzen dela bermatze aldera.

2018-2019 aldian garatutako proiektuak aurkez daitezke deialdi honetara.

#### **NOBEDADEAK:**

Elkarlanean egindako proiektu guztiek hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Proiektuak garatzeko eraturako elkarlan-partzuergoak orekatua izan behar du, eta elkarlan eraginkorra egin, halako moduan non erakunde bazkide guztiek era orekuan ematen dioten balioa proiektuari.
- Erakunde parte hartzaile bakoitzak ez du proiektuaren kostu osoaren %70 baino gehiago bere gain hartuko.
- Lankidetzak-akordio bat egin beharko da erakunde parte hartzaile guztien artean, haien legezko ordezkariak izenpetua, proiektua gauzatzeko dela bermatu duena eta emaitzak ustiatzeko hitzartutako baldintzak jasoko dituen.

#### **Definizioak:**

##### **ZTBEEKren Kidea:**

- ✓ **Zerrenda:** <http://www.spri.eus/euskadinnova/eu/berrikuntza-teknologikoa/zientzia-teknologia-berrikuntzaren-euskal-sarea/382.aspx>

**I+Gko enpresa-unitatea:** nortasun juridiko propioa duten erakundeak, irabazte xederik gabekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza izan eta beren jardunak nagusia bertan garatzen dutenak eta entitatearen enpresa titularren interesak asetzeko xedez teknologia eta berrikuntzak sortzeko eta garatzeko jardunak burutzen dituztenak hain zuzen. Nortasun juridiko propioa izan behar dute entitate hauek eta, beren sorreran, enpresa batek edo enpresen baterakunde batek parte hartu ahal izango dute, baterako ikerketa eta garapen proiektuei ekin ahal izateko.

- ✓ **Zerrenda:** <http://www.spri.eus/euskadinnova/eu/berrikuntza-teknologikoa/zientzia-teknologia-berrikuntzaren-euskal-sarea/enpresatako-unitateak/388.aspx>

**Berrikuntzako Bitarteko Erakundeak:** izaera publiko edo pribatua duten erakundeak; nortasun juridiko propioa dutenak eta irabazte xederik gabekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza izan eta beren jardunak nagusia bertan garatzen dutenak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako eskaintzak dituzten Zentroen eta enpresen arteko bitartekaritza jardunak burutzen dituztenak, bai eta berrikuntzarako jardunei laguntzeko hainbat zerbitzu espezifikoki eskaintzen dutenak ere. Horrela, sistema soziala indartu eta zientziaren eta teknologiaren arteko elkarlana sustatzen dute, berrikuntzarako prozesuak hedatu eta gehiengoarengana hel daitezten.

- ✓ **Zerrenda:** <http://www.spri.eus/euskadinnova/eu/berrikuntza-teknologikoa/zientzia-teknologia-berrikuntzaren-euskal-sarea/berrikuntzako-bitarteko-erakundeak/391.aspx>

**Eskaerak aurkezteko epea**

2018ko **otsailaren 22ra arte 12:00etara arte.**

**UPV/EHUko IZAPIDETZA:**

- **I. Eranskina eta Lankidetzak-akordioaren zirriborroa** aurkezteko azken eguna: **2018ko otsailaren 2a**
- **Erakundeko legezko ordezkariaren sinadura** eskatzen duten agiriak bidaltzeko azken eguna (Aplikazioko 5. atala: "Sortu enpresa bakoitzak sinatu beharreko inprimakiak"): **2018ko otsailaren 16a**
- Deialdiaren amaiera: **2018ko otsailaren 22a, 12:00etara arte**

Hala egin ezean, Ikerketaren arloko errektoreordeak eskaera sinatu ezin izateko arrisku handia egon daiteke.

Goian adierazitako agiriak **jarritako epeetan** bidali beharko dira helbide hauetara, betiere proiektuaren ikertzaile nagusiaren campusa kontuan hartuta.

**Bizkaiko Campusa:** [igz.bizkaiadeialdiak@ehu.eus](mailto:igz.bizkaiadeialdiak@ehu.eus)

**Gipuzkoako Campusa:** [igz.gipuzkoadeialdiak@ehu.eus](mailto:igz.gipuzkoadeialdiak@ehu.eus)

**Arabako Campusa:** [igz.arabadeialdiak@ehu.eus](mailto:igz.arabadeialdiak@ehu.eus)

**Eskabideak aurkeztea:**

Eskabidea eskuratzeko eta betetzeko, egoitza elektronikoa honetara jo beharko da:

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/es/> (gazteleraz)

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/eu/> (euskara)

Aipatutako egoitza elektronikoa, eskuragarri egongo dira bide elektronikotik izapideak egiteari buruzko zehaztapenak, eskabidea, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainontzeko ereduak.

Eskabidearekin zenbait fitxategi aurkeztu beharko dira, honako agiri hauen kopia digitalizatua dutela:

**a) Proiektuaren eragile liderrak honako hauek aurkeztuko ditu.**

1) Eskabide-**inprimakia**, proiektuaren lider den erakundeak sinatuta, honako hauek barne hartuko dituen: proiektuan parte hartzen duten erakundeen datuak eta haietako bakoitzak egingo dituen jarduerak eta izango duen aurrekontua (**TC1**).

2) Proiektuaren **memoria** tekniko-ekonomikoa.

3) Erakunde parte hartzaileek sinatutako lankidetzak akordio digitalizatua. UPV/EHU buru duten proiektuetan deialdiko webgunean eskuragarri dagoen hitzarmen eredu erabiliko da. Hitzarmena negoziatzen ari denean, eragile bakoitzak proposatutako aldaketa guztiak "aldaketa kontrola" sistemaren bidez egin beharko dira, kasuan kasuko azalpen oharra erantsita, hala, aldaketen jarraipena egin ahalko da eta, behar izanez gero, bestelako proposamenak egin. Alde guztiek behin betiko testua adostutakoan, akordio osoa jasoko da aplikazio telematikoa 4.1.12 atalean, hala, eduki osoa agertuko da eragile bakoitzak sinatu beharreko agiriak sortu behar direnean.

b) **Erakunde parte-hartzaile guztiak (eragile liderrak barne) honako hauek aurkeztuko dituzte:**

- 1) Proiektuan **parte hartzeko inprimakia (TC2)**.
- 2) Eragilearen jarduerari buruzko **oinarrizko datuen** deskribapen-memoria **(TC4)**
- 3) Eskatzailearen **ordezkaritza-ahalmenaren** kopia digitalizatua.

#### Erakundearen datuak:

- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Barrio Sarriena, s/n - Leioa (Bizkaia)
- **Posta kodea:** 48940
- **Legezko ordezkaria:** José Luis Martín González
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea
- **NAN:** 78865001-W
- **Ahalorde notarialeko data:** 2017-01-11

#### Diruz laguntzeko gastuak

✓ Proiektuan zuzenean arituko diren langileen gastuak (ikertzaileak, teknikariak eta laguntzaileak), kostu zuzenak nahiz zeharkakoak barne.

A- **Ikertaldeko kideen tarifa.** (Ikusi I. Eranskinean egindako berrikustea)

B- **Proiektu honen organikoarekin kontratatutako ikertzaileak (kostu zuzena).**

Urteko ordu muga 1.592.

- Arduraldi osoko PIK ez doktorea. Orduaren kostua: 25,20 €
- Arduraldi osoko PIK doktorea. Orduaren kostua: 28,59 €
- ZTBLko 21. artikulua bitartez kontratatutako ikertzaileak, urteko kostua  
1. eta 2. Urteak. Orduaren kostua: 11,45 €;  
3. eta 4. Urteak. Orduaren kostua: 14,40 €
- ZTBLko 22. Artikuluaren bitartez kontratatutako ikertzaileak. Orduaren kostua: 27,65 €

**\*OHAR GARRANTZITSUA:** Langileen gastuen barne, UPV/EHUK soilik erabili ahal izango du zeharkako gastua beren langileentzat, horren langileen kostu zuzena ezin izango du inola ere ez finantzatu. Berriz, proiektua egiteko kontratatutako langileen tarifa kostu zuzena izango da. Goian adierazitako zenbatekoak **gutxienekoak eta behin-behinekoak** dira eta **aldaketei lotuta** daude. Izan ere, 2017an soldata goititu, soldata osagarriak igo (hirurtekoak, euskotramoak...) edo kalte ordainaren kostua doitu liteke, ...

- ✓ Ikerketa-proiektuaren zati batzuk azpikontratatzeari. Oro har, ezin izango da kostu osoaren %50etik gora kontraturik egin. Salbuetsi egingo dira Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak baimendutako gastuak, espezializazio-maila handikoak izateagatik eta ezinezkoa izateagatik erakunde onuradunek beren baliabideekin soilik jardura horiek burutzea.
- ✓ Aholkularien zerbitzuak eta antzeko beste zerbitzu batzuk. (Auditoriako gastuak jarri behar dira: urtero 1.500€ agente bakoitzeko edo, UPV/EHUREN kasuan, parte hartzen duen saileko).
- ✓ Ikerketa-jarduerak zuzenean eragindako beste gastu batzuk (materialak, horniketa, bidaiak, eta abar).
- ✓ Patenteak erregistratzeko eta mantentzeko gastuak eta/edo jabetza intelektuala babestekoak.

- ✓ Amortizazio-gastu hauek: azpiegitura sortzekoak eta ekipamendu teknologiko aurreratua erostekoak, bai eta instalazio eta zerbitzuak hobetzekoak ere. Gastua horien helburua izango da proiektuaren xedea baldintza onenetan erdieste.

**Barrurako, ez da onartuko ibilgetuaren erosketa** emandako subentzua justifikatzeko, programaren iraupenak ezinezkoa egiten baitu bere amortizazioa oso-osorik. Honez gain, ez da gomendagarri finantzatzaren diren zenbatekoengatik.

#### **Ekipamendu informatikoa: EZ**

**Software lizentzien erosketa eta mantentzeari** dagokion gastua proiektua gauzatu bitartean bakarrik hauta daiteke, baldin eta proiektuan erabili dela erakusten bada.

Langile berririk proiektuaren kargura kontratatzen bada, "Gastuak" atalean kodifikatu beharko da, ez "Lan eskua" atalean, azken horretan 1. eranskinean baimendutako langileak bakarrik sartuko dira.

Langileen ordu arduraldia ikertaldearen barruan, urtean 1.000 ordutara mugatuko da. Zenbateko horri parte hartzen den beste proiektu aktiboetara eskaintako orduak kendu beharko zaizkio, baita irakaskuntzarekin zerikusirik ez duten eginkizunei dagozkienak ere.

Eragile bakoitzeko eska daitekeen gutxieneko aurrekontua: 50.000€. UPV/EHUren kasuan, eskaera bakarrean doazen sail guztiak eragile bakoitzat joko dira.

Aurrekontu propioa duen sail bakoitzean ikertzaile nagusia izan daitekeen pertsona bat izango da, hau da, UPV/EHUrekin lotura iraunkorra duen pertsona bat.

#### **Harremanetarako:**

##### **UPV/EHU:**

Tel.: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa:

**Bizkaiko Campusa:**

[igz.deialdiak@ehu.eus](mailto:igz.deialdiak@ehu.eus)

**Gipuzkoako Campusa:**

[igz.gipuzkoadeialdiak@ehu.es](mailto:igz.gipuzkoadeialdiak@ehu.es)

**Arabako Campusa:**

[igz.arabadeialdiak@ehu.es](mailto:igz.arabadeialdiak@ehu.es)

##### **SPRI:**

Tel.: 94 403 70 43/30

Helbide elektronikoa:

[mgarcia@spri.eus](mailto:mgarcia@spri.eus)

##### **EUSKO JAURLARITZA:**

Tel.: 945 01 82 24

Helbide elektronikoa:

[a-gandarias@euskadi.eus](mailto:a-gandarias@euskadi.eus)

Tel.: 94501 65 70

Helbide elektronikoa:

[ja-martinez@euskadi.eus](mailto:ja-martinez@euskadi.eus)